

> **bagatoz, indar berriz**

BATXILERGOA IBAIZABALEN > AURREMATRIKULA SASOIA MARTXAN

DBH bukatutakoan beraien etorkizuneko bidea marrazten jarraitzea tokatzen zaie gure ikasleei. Horregatik, ezinbestekoa da egin behar dituzten aukeren aurrean bidelagun sendoak izatea.

Duela 25 urte, Bizkaiko ekialdeko hainbat ikastola batu ginen, DBH bukatu ostean batxilergoa ere ikastola ereduaren barruan egiten jarraitzeko aukera eraikitzeko. Proiektu horri Ibaizabal izena jarri genion, eta dagoeneko, bide luzea egin dugu.



Urteroko moduan, Ibaizabalgo lankide eta ikasleak gurean izango ditugu, batxilergoaren inguruan hitz egiteko, eta ikasleek jarrai dezaketen bide eta eskaintzaren berri emateko. Ikastolan ikasten jarraitzeko bide naturala baita Ibaizabal, ikastola ereduaren hezten eta formatzen jarraitzeko.

Baina, horrez gain, hezkuntza proiektu sendoa proposatzen du Ibaizabalek. Kooperatiba ereduaren eraikia, izaera komunitarioduna, auzolanean egiten duena aurrera eta Durangaldeko dinamiketan errotua dagoena. Eskaintza akademiko zabala: Zientzia eta Teknologiako modalitatea (osasun zientzietako bidea, mistoa edo teknologiako bidea eskaintzen duena) eta Giza eta Gizarte Zientzien modalitatea, Gizarte zientzietako bidea, humanitateetako eta ibilbide mistoa eskeintzen dituelarik.

Ibaizabalen pertsona ereduaren oinarritutako ikasle perfilaren arabera lanketa egiten da bai ikasgela barruan egin eta hartzen diren erabaki guztietan, eta baita ikasgelaz haratago ere. Batxilergoa amaitzean, gure ikasleak, euskaldun eta euskaltzaleak, kritikoak, feministak,

> bagatoz, indar berriz

autonomoak eta eragileak izatea da helburua. Hartara, legea ziurtatu bai, baina gure eredu propioa izaten jarraitu ahal dugu batxilergoko etapan ere.

Gelaz kanpo ere hezten eta formatzen jarrai daitekeenez, ikasleek hainbat foro eta ekintza dituzte horretarako. Hazien sistemari esker, adibidez, ikasgelaz kanpo ekintza kultural zein zientifikoetan parte hartuz, beraien esperientzia akademikoa indartu dezakete ikasleek eta, gainera, emaitza akademikoak indartu.

Ikaslea erdigunean kokatuta, tutoretza lan sendo baten bidez, errefortzu sistemaren bitartez eta lehenengo mailatik bertatik hasten den orientazio programa indartsu baten bidez, ikasleen etorkizuneko aukeretan arrakastaz aritzeko tresnak jartzen dituztela beraien eskura. Izan ere, ikasleak berak egiten baitu bidea, horretarako eskura dituen lanabes eta bidelagunak baliatuz. Nola ez, bidelagun baikara, bai ikastolako langileak, eta, nola ez, familiak ere.

Eta, bidean egiten den indar guzti honen ondorioz, Ibaizabalgo ikasleak batxilergoa bukatutakoan egin nahi dituzten bideetarako ondo prestatuta ateratzen dira. Lanbide Heziketarako bidea egin nahi dutenen espedientea sendoa izaten baita, eta, unibertsitaterako sarbidea egiten duten ikasleen kasuan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleen batzbestekoen gainetik kokatzen baitira beraien emaitzak selektibitateko neurketetan. Ez da ahaztu behar, Ibaizabalen, nota etengabe hobetzen joateko sistema oso bat jartzen duela ikasleen eskura, eguneroko lanaren bidez bikaintasuna eskuratu ahal izateko. Eta azken urteetan bikaintasunaren inguruan martxan jarri diren neurriei esker, gorakorra da gainera ikasleek eskuratzen duten batzbestekoa.

Horri guztiari gehitu behar zaio, Ibaizabal hazten ari den proiektua dela, eraikin berri bat egin berri, ikasleen beharretara moldatutako ordutegiarekin, jantoki eta autobus zerbitzu konpletoarekin, eta ikastola soil batetik haratago doan espazio eta azpiegiturekin.

Beraz, bidezidorretan galdu gabe, bide indartsu bat egitean datza Ibaizabalgo ereduak. Bidea indartuz, emaitza sendoak ziurtatu daitezkeelako. Bagatoz indar berriz!

Ez ahaztu: aurrematrikulazio epea martxoaren 16tik 27ra bitartean Ate irekiak martxoaren 11 eta 12an.

Informazio guztia www.ibaizabalikastola.eus webgunean eta Ibaizabalgo sare sozialetan.